

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

2109 *Hutsen zuzenketa, honako lege honena: 22/2013 Legea, abenduaren 23koa, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.*

2013ko abenduaren 26ko Estatuko Aldizkari Ofizialaren 309. zenbakiaren euskarazko gehigarrian argitaratutako abenduaren 23ko 22/2013 Legeak, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, hutsak zituela ikusirik, honako zuzenketa hauek egin behar dira:

7. orrialdean, hitzaurreko VII. paragrafoko hamaikagarren lerrokadan, honako hau dio: «Aireportuko ondare-prestazio publikoak ehuneko 2,5 handiagoak izango dira 2013an eskatutako zenbatekoekin alderatuta.», hauxe esan behar du: «Aireportuko ondare-prestazio publikoak ehuneko 0,9 handiagoak izango dira 2013an eskatutako zenbatekoekin alderatuta.».

162. orrialdean, hogeita bosgarren xedapen gehigarrian, Bat paragrafoan, azken lerroan, honako hau dio: «Mugikortasun- eta garraio-gastuetarako sorospena», hauxe esan behar du: «Mugikortasun-sorospena eta garraio-gastuetarako konpentsazioa.».

196. orrialdean, azken xedapenetako laugarrenean, Hiru atalean, «131 bis artikulua. Subsidiorako eskubidea iraungitzea» tituluko hirugarren lerrokadan, bigarren lerroan, honako hau dio: «... bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko gehieneko epea igaro denean;...», hauxe esan behar du: «... bostehun eta berrogeita bost egun naturalak igaro direnean;...».